



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Espte. zk:	2017IKTO0004
Azalpena:	Kale Nagusia 66-72 eraikineko atzeko saneamendu sareko berrikuntza proiektuaren 1. fasea

536/ 2018 DEKRETUA

IKUSIRIK:-Kale Nagusiko 66.-72. zenbakietan dauden eraikinen gunean menditik datorren ura jasotzen duen kolektorea pitzatuta dagoela, eta honen konponketa-lanak egiteko obra bi loteetan banatu zela

1.lotea.-Kontratista orokorra. Fabrika-obra berritzea: zorrozten mailakatu, kutxatilak eta erretena.

2. lotea.- Kolektorearen konponketa zangarik gabeko teknologiarekin.

IKUSIRIK.- Obraren zenbateko totala **50.819,30** euro dela (prezio horrek ez du BEZa barnean hartzen), eta horrela banatuko dela:

1. lotea: 23.975,42 euro (BEZa gabeko prezioa)

2. lotea: 26.843,88 euro (BEZa gabeko prezioa)

IKUSIRIK.- Lehenengo faseko Obra-kontratuaren esleipena izapidetze arruntaren bidez eta prozedura irekiaren bidez egin zela, baina hutsik gelditu zenez,, presazko eta publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetzeari ekin zitzaioia eta prozedura honetan hiru enpresa aurkeztu direla

- **Construcciones Laugas SA**
- **Construcciones Moyua SA**
- **Sasoi Eraikuntzak SL**

IKUSIRIK.- Bigarren faseko Obra-kontratua prozedura irekiaren bidez bideratu zela, eta lizitatoria enpresa bakarra aurkeztu zela:

Sinzatec Canalizaciones SL



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

KONTUAN HARTURIK.- Lehenengo faseko Obra-kontratuaren proposamen teknikoak eta ekonomikoak aztertu ondoren, kalifikazioak honakoak direla

Enpresak	B Kartazala	C Kartazala	GUZTIRA
CONSTRUCCIONES LAUGAS SA	22,00	60,44	82,44
CONSTRUCCIONES MOYUA SA	17,00	60,00	77,00
SASOI ERAIKUNTZAK SL	0,00	0,00	0,00

KONTUAN HARTURIK.- Bigarren faseko Obra-kontratuaren proposamen tekniko eta ekonomiko bakarra aztertu ondoren, kalifikazioa honakoa dela:

ENPRESA	B KARTAZALA	C KARTAZALA	GUZTIRA
SINZATEC	22,00	60,00	82,00

XEDATU DUT

LEHENA.- ASTIGARRAGAKO KALE NAGUSIKO 66.-72. ZENBAKIETAKO SANEAMENDU-LANEKO (KOLEKTOREAREN KONPONKETA) obraren esleipena honakoa da:

- **1. faseko lehiaketa Construcciones Laugas S.A..** enpresari esleitzea 23.799,10 eurotan (BEZ kanpo), punturik gehien lortu duen enpresa delako lehiaketa honetan, hain zuzen 82,44 puntu.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

- **2. faseko lehiaketa Sinzatec** enpresari esleitzea 26.307 eurotan (BEZ kanpo), lehiakide bakarra izan delako eta baldintzak betetzen dituelako. Lehiaketa honetan 82 puntu lortu ditu

BIGARRENA.- Esleipendunek kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean daudenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Bermeak honakoak dira:

- **1. faseko** lehiaketan, Construcciones Laugas S.A. enpresak 1.189,95 €tako behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu
- **2. faseko** lehiaketan, Sinzatec enpresak 1.315,35 €tako behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

Astigarraga, 2018ko maiatzaren 07a

Juan Martín Arregui Sagües
Obra eta kontrataziorako zinegotzi delegatua